

Organoa	Euskara Batzordea	Bilera-zenbakia	2019/01
Eguna	2018/11/19	Hasiera-ordua	19:00
		Amaiera-ordua	20:30
Tokia	Elai Alai aretoko erakusketa gela		

Bertaratutakoak

Iñigo Magunagoikoetxea – **Euskara zinegotzia**

Pili Ibarra – **Berbalagun eta AEK**

Ziortza Polin – **EAJ-PNV**

Igone Olabarria – **Bere izenean**

Josune Olabarria - **Kantegunea**

Xabier Goiria – **URE elkarte**

Maiteder Olano – **Segundo Olaeta M.E. zuzendaria**

Karlos Gorrindo – **Euskara Zerbitzua (trebatzailea)**

Estiñe Astorkia – **Euskara Zerbitzua (Hitzargune programako koordinatzailea)**

Bidane Gartzia – **Allende Salazar ikastetxeko Guraso Elkarte**

Garbiñe Mirandona – **Allende Salazar ikastetxea**

Libe Gonzalez – **Berritzeguneko Euskara Teknikaria**

Luis Ortuzar – **Gernika Institutua BHI**

Maitte Larruzea – **Barrutia ikastetxea**

Espe Uriarte – **Bere izenean**

Isidro Rodriguez – **Bere izenean**

Bittor Zarrabeitia – **Euskara Zerbitzua (Batzordeko idazkari lanetan)**

Ezin etorria adierazi dutenak:

Marije Zubiaga – **Aita Villasante Udal Euskaltegia**

Pernan Basterretxea - **Busturialdean Euskaraz Bizi elkarte**

GAI-ZERRENDA

- 1).- Euskararen eguna (abenduak 3): egitarauaren berri ematea eta partaideen ekarpenak jasotzea.
- 2).- Euskaraldiaren II. Edizioa martxan jartzeko proposamena (abenduarien 3koarekin lotura) eta eragileen ekarpenak jasotzea.

1).- Euskararen eguna (abenduak 3): egitarauaren berri ematea eta partaideen ekarpenak jasotzea.

Batzordeko idazkariak hausnarketa egin du deialdiarekin bidalitako egitarauaren zirriborroari buruz eta aldaketa proposatu ere bai; euskaraldiaren I. edizioari buruzko txostena jaso berria dugunez, horren berri eman du. Ikerketarako erabilitako lagina esanguratsua ez bada izan (2.942 partaide guztira, ahobiziak 2.530, belarriprestak 412, eta 3 galdetegiak erantzun dutenak 208), are kezagarriagoa izan da erantzun duten belarripresten kopurua, 14 baino ez. Beraz, ikerlanaren erdia inguru hankamotz geratu da. Bestalde, lehenengo galdetegitik hirugarrenera neurtu diren parametroetan ez da lortu hizkuntza ohitura aldaketarik egonkortzea, bitan izan ezik (ikus "Herri mailako txostena – 2019 – Gernika-Lumo" agiria 62. Orrialdea: 3., 4., 5. eta 6. puntuak):

- Euskaraldiak 11 eguneko epean ahobizien artean eta lagunartean izan du eragin handien eta hiru hilabete pasatakoan ere bertan lortu da ohitura berriak gehien egonkortzea (euskara hutsean edo erdia baino gehiago euskaraz egitearen datuak: 1. Galdetegian %69 eta hiru hilabete garrenean %78).
- Belarriprestetan, aldiz, epe laburrean lagunartean ikusi badira aldaketa positiboak, epe luzera begira familia giroan lortu da hizkuntza ohitura berrien egonkortze maila altuena (euskara hutsean edo erdia baino gehiago euskaraz egitearen datuak: 1. Galdetegian %57 eta hiru hilabete garrenean %65). Baina kontuan hartu behar da ikertu den lagina ez dela fidagarria: 14 belarripresten erantzunak besterik ez.

Beraz, proposatzen du azaroaren 29an txosten hori aurkezteko ekitaldia baztertzea, datu multzo hori emateak ez lukeelako ekarpenik egingo II. edizioko partaidetzarako ez eta jendea motibatzeke ere, nahiz eta guretzat eta Gernika-Lumoko Euskaraldia Batzordearen dinamikarako pistak eman.

Hori horrela, Estiñe Astorkiak proposatu du ziurtagiri banaketa ekitaldia abenduaren 2an egin beharrean azaroaren 29an egitea. Aurtengoan 23 ziurtagiri banatuko ei dira.

Euskararen eguneko egitarauaren zirriborroa dela-eta, eragile desberdinen ordezkariak informazioa eskaini dute:

- **Euskal Lorratzak** (azaroaren 30an).- SOMEko Zuzendariak adierazi du Kantegunearekin elkarlanean antolatuko duten ekitaldiak izango eskema berbera izango duela: zapatua finkatu, izena ere bai (Euskal Lorratzak), 12 kantako libreto txikia, musika talde batek lagunduta, eszenatokia, megafonia eta eserlekuak,...
- **“Euskara Olgetan errotu”** kanpainaren amaierako jaialdia (abenduak 1).- URE elkarteak Xabier Goiriak eskaini du informazioa kanpaina horri buruz (3-6 urte bitarteko haurrei eta euren gurasoei begirakoa).
- **11 orduko irakurraldia** (abenduak 3).- Pili Ibarra Berbalaguneko arduradunak informatu du honi buruz. Aurtengoan, Andu Lertxundiren “Hamaseigarrenean, aidanez” liburua izango da irakurgai, eta ekitaldia burutzeko izango eskemari jarraituko zaio. Zalantzan dago idazlea egon ahal izango den.

Erabakia:

Euskararen egunerako hurrengo egitaraua finkatzea:

AZAROAK 29	20:15	“BAI EUSKARARI” ziurtagiri banaketa Astran (elkartek, merkataritza, enpresa txikiak,...), Ziurtagiriaren Elkartearen eskutik.
AZAROAK 30	12:00	“EUSKAL LORRATZAK” : Segundo Olaeta Musika Eskolako haurren korua eta Urdaibai Kantagunea Merkatu Plazan kantari.
ABENDUAK 1	17:00 20:00	“EUSKERA OLGETAN ERROTU 2019” kanpainaren amaierako jai erraldoia Jai Alai frontoian (3-6 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat), URE elkartearekin.
ABENDUAK 3	9:00 20:00	11 ORDUKO IRAKURRALDIA Elai Alai areto txikian, Berbalagunen eskutik. Irakurgai: Andu Lertxundiren “Hamaseigarrenean, aidanez” liburua.
	20:00	Jarraian, EUSKARALDIAREN II. EDIZIORAKO TXUPINA (ekitaldi sinbolikoa eta Euskal Herri osoan irakurriko den ADIERAZPENA jendaurreatzea)

2).- Euskaraldiaren II. Edizioa martxan jartzeko proposamena (abenduarien 3koarekin lotura) eta eragileen ekarpenak jasotzea.

Deialdiarekin batera bidalitako proposamena hausnartzeari ekin zaio.

Erabakiak:

1).- Euskaraldiaren II. Ediziorako izena ematea eta **Gernika-Lumoko Euskaraldia Batzordea eratutzat jotzea** Euskara Batzorde honetan partaide direnekin. Aurrerantzean izena emango duten beste erakundeei ere zabalik egongo da batzorde hau eta osatuz joango da.

2).- Euskaraldiaren II. Ediziorako **ekitaldi sinbolikoa antolatze**ko, hurrengo puntuei eutsiko zaie:

- HPS-tik proposatutako "sarea" osatzeko, **panelak erabiltzea** eta Artekaleko arkupeetan zehar jartzea.
- Izena emango duen **erakunde/elkarte/enpresa bakoitzak bi orri beteko ditu**, bata lehenengo edizioko BIZIPENAK islatzeko eta, bestea, bigarren ediziorako DESIOAK azaltzeko.
- Abenduarien 3an eta lehenagotik jasotako orriak (bizipenak eta desioak, ahal dela plastifikaturik) **paneletan jarriko dira**: erakunde bakoitzeko partaideen argazkia, logoa eta adierazpenak.
- Euskararen egunean, 11 orduko irakurraldia bukatu ostean, 20:00ak inguruan, Euskal Herri osoan irakurriko den **ADIERAZPENA irakurriko da**. Euskaraldiaren I. edizioan emaiarako adierazpena irakurri zutenak izango dira irakurlea (ahobizia eta belarripresta).
- Irakurketa ondoren, **argazki erraldoia** egingo da irakurraldian parte hartu dutenekin eta euskaraldiko sarean partaide direnekin.

Gernika-Lumon, 2019ko azaroaren 6an.

Euskara Zinegotzia

Batzordeko idazkaria

Iñigo Magunagoikoetxea

Bittor Zarrabeitia

